

Aitzinsolasa

Izaten dira helduleku on eta ugariko pertsonak, nonahitik begiratuta ere mamia ikusten zaienak. Nikolas, hainbesteko gizasemea izaki, handitasun fisikoaren alderditik zirikatu izan dugu beti. Esaten bezala entzuten jakiteak, ziri-sartzaile bezain hartzaile ona izateak ere laguntzen du horretan, baina Largarateko semeak fisikoz gaindiko heldulekuak ditu aipagarrienak.

Sortze beretik bizi, garatu eta gozatu ditu Nikolasek liburu honen bizkarrezur diren hiru alderdiak. Batetik, alderdi espirituala, fraide izatea, Asisko Frantziskoren eredu. Bestetik, artzain-gaztagilearena, apaletatik harrak erortzen ikustetik nazioarteko sariak irabaztera eramane duena. Eta azkenik, bertsolaritza, bertsolarien miresle izan ondoren euren artean luzaroan ibiltzeko aukera eman dion zaletasun gozagarria. Zein lehengo erabakitzeak arrautza edo oiloaren dilemak adinako buru-haustea eragingo lizkiguke.

Lehendik ere bagenekien Nikolas Segurola jende askok maite duela, berezko sinpatia eta enpatia sortzen dituela. Horrek piztu zuen, hein batean, haren izatea eta bizitza liburu batean biltzeko ideia. Elkarrizketak mamitu, lekukotasunak bildu eta orriak osatzen joan

garen heinean, are argiago sentitu eta jaso dugu irudipen hori. Liburuaren hiru ardatzak lantzen aritu garenontzat ere gozamen-iturri paregabea izan da lantxo hau burutzea. Nikolas pertsona atsegina da erabat, onbera, xaloa, gozoa, maitagarri hutsa. Eta gaitzeko gozaldiak eman dizkigu harekiko tratuak.

Liburuaren azaleko argazkia adierazgarria izan zedin nahi genuen, hitzik gabe ulertzeko modukoa, irudiak berak isla zitzala barnean landu ditugun hiru alderdiak. Horretarako, hiru gauza behar genituen: abitua, mikro zahar bat eta artaldea. Abitua jantzita dotore plantatu zitzaigun gizona. Mikroa eta tripod-a aise kokatu genituen, baina ardiak ez ziren hain geldirik egoten. Eduardo Urarte eta Iñaki Beristain aritu ziren artzain lanetan, handik aitzakatu eta hemendik eutsi. Eta dotore ageri da gure Nikolas: mikroari sendo eutsita, abitua soinean eta ardiak atzean, bertso zaharrak begitarte alaiz kantatzen.

Liburu honetan aleturik aurkituko dituzu, irakurle, Nikolasen bizitza, izaera eta pentsaera, pasarte sakon eta irrigarri ziprztindurik. Gozagarri gerta dakizula.

Xabier Euzkitze
Argitalpenaren koordinatzailea